


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 2,8 igo dira 2023ko urtarrilean

Urte arteko terminoetan, 2023ko urtarrilean 2022ko urtarrilaren aldean, prezioen igoera % 8,6koa izan da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 2,8 igo da 2023ko lehen hilabetea, aurreko hilaren aldean. 2022ko hilabete berarekin alderatuta, kostuak % 8,6 igo dira.

Etxegintzako kostuak hil artean % 2,7 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 3,2. 2022ko urtarrilaren aldean, prezioak % 10,5 igo dira Obra Zibilean eta % 8,2 Etxegintzan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2022ko abenduaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 3,0 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak % 2,1. Urte arteko terminoetan, ordea, lehengaien kostua % 10,7 igo da, eta eskulanarena % 2,1.

Etxegintzaren sektorean lehengaien kostua % 2,9 igo da hil artean, eta Obra Zibilarenean % 3,6. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 10,1 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 13,1.

insertatabla_19349

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioetan, 2023ko urtarrilean, 2022ko urtarrilarekin alderatuta, igoerarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 20,2), *Petrolioaren fintzea* (% 15,9), *Industria kimikoa* (% 15,6) eta *Mineral ez-metalikoen industria* (% 15,5). Lehengaien prezioetan igoera neurritzkoenak izan dituzten sektoreak, aldiz, honako hauek izan dira: *Material elektrikoa* (% 3,8ko igoerarekin) eta *Material elektronikoa* (% 4,0koarekin).

insertatabla_19355

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62